La zona de fabricación del cloruro férrico está aislada mediante un cubeto de seguridad en el que se recogen todas las aguas de lavado de la zona, goteos y aguas pluviales, conduciéndolas hacia una arqueta central de bombeo, desde donde pasan a la balsa de recogida de efluentes (600 m^3 de capacidad) para su posterior tratamiento en la depuradora.

Asimismo, las pluviales recogidas en el cubeto de seguridad de los depósitos de almacenamiento y las caídas sobre el parque de chatarra se incorporan a la red de saneamiento y se conducen igualmente a la balsa de de recogida de efluentes para su tratamiento.

Además, en la planta de Dekitra, S.A. de Lantarón se realizan los procesos productivos que se describen a continuación:

1.– Almacenamiento y envasado de productos químicos.

Una de las actividades de Dekitra, S.A. consiste en el almacenamiento de productos químicos, tanto líquidos como sólidos, para su posterior envasado y distribución.

Fabrikara zisterna-kamioietan iristen diren produktu kimikoak andel finkoetan kargatzen dira, motoponpak erabiliz. Beste batzuetan, produktua fabrikako bertako ekoizte-eremuetatik ponpatuz kargatzen da. Produktuak andel finkoetatik bana daitezke, zisterna-kamioiak erabiliz, edo ontzi higikorretan ontziratuta.

Produktu likidoak ontzi finkoetan zein ontzi higikorretan biltegiratzen dira. Lehen kasuan, likidoak biltegiratzeko 80 andel finkotik gora daude, edukiera ezberdinetakoak, 30-40 m^3-etatik NaOH andelaren 400 m^3-etara bitartekoak. Andel horiek segurtasun-kubetetan jartzen dira, eta kubeten zolak kutxeta hartzaileetarako malda du. Kutxetek, aldi berean, uhate-balbula dute, normalean itxita, fabrikako tratamendu-instalazioekin konektatuta dagoen saneamendu-sarearekin lotuta dagoena.

Ontzi higikorrei dagokienez, hainbat mota daude: 1.000 litroko edukiontziak eta 50 edo 25 litroko bonbonak. Produktu arriskutsuak gordetzeko eremuek gutxienez % 1eko maldak dituzte kontrol-kutxetetara, eta kutxetak segurtasun-balbulen bidez konektatzen dira hondakin-uren araztegira lotutako barneko saneamendu-sarera.

Biltegiratutako likidoak ezaugarri korrosiboak dituzte batik bat, hala nola kloro likidoa, azido ezorganikoak (sulfurikoa, nitrikoa, klorhidrikoa), gatz azidoak (aluminio polikloruroak, aluminio sulfatoa); edo oinarrizkoak (sodio hidroxidoa, sodio hipokloritoa). Likido kaltegarriak (amoniako-disoluzioa, HSO3Na), toxikoak (akrilamida) eta sukoiak ere biltegiratzen dira.

Produktu solidoak biltegiratu eta merkaturatzeko (batik bat big-bag edo zaku paletizatuetan) 816 m^2-ko pabiloi bat dago, kamioientzako sarbidea duena.

Azkenik, fabrikan burutzen den beste prozesu bat sodio karbonatoa biltegiratu eta ontziratzea da. Prozesu hori gauzatzen den instalazioak silo bertikala, zakuratzeko makina, uhal garraiatzailea eta igortzeko paletizatzeko makina ditu. Produktua modu pneumatikoan deskargatzen duten zisterna-kamioietan iristen da biltegiratze-silora. Bi mahuka-iragazki daude prozesuan isuritako partikulak biltzeko.

Kloroa biltegiratzeari lotutako isurtze atmosferikoen fokuaz gain (aurrerago zehatuko da), fabrikako biltegiratze- eta ontziratze-prozesuetan badira isurtze atmosferikoen beste hiru foku, prozesu hauei lotuta: azido klorhidrikoa biltegiratu eta ontziratzeko xurgapen-dorrea (biltegiak haizatzea), amoniakoa ontziratzeko xurgapen-dorrea (ez-sistematikoa), eta

Los productos químicos que llegan a la planta en camiones cisternas se cargan en tanques fijos mediante la utilización de motobombas. En otros casos se carga el producto bombeado desde las zonas de producción de la misma fábrica. Los productos pueden ser distribuidos bien desde los tanques fijos utilizando camiones cisternas, o bien envasados en recipientes móviles.

El almacenamiento de productos líquidos se lleva a cabo tanto en recipientes fijos como en recipientes móviles. En el primer caso la planta dispone de más de 80 depósitos fijos de almacenamiento de líquidos de capacidades muy variables, que oscilan desde los 30-40 m^3 hasta los 400 m^3 del tanque de NaOH. Estos depósitos se disponen en cubetos de seguridad cuya solera dispone de pendiente hacia arquetas receptoras equipadas con válvula de compuerta, en situación normalmente cerrada, y que comunica con la red de saneamiento conectada a las instalaciones de tratamiento de la planta.

En cuanto a los recipientes móviles, existen diversos tipos, desde contenedores de 1.000 litros a bombonas de 50 o 25 litros. Las zonas de almacenamiento de productos peligrosos presentan soleras con pendientes mínimas del 1% hacia arquetas de control conectadas mediante válvulas de seguridad a la red de saneamiento interna conectada a la depuradora de aguas residuales.

Los líquidos almacenados son fundamentalmente de características corrosivas, como cloro líquido, ácidos inorgánicos (sulfúrico, nítrico, clorhídrico) sales ácidas (policloruros de aluminio, sulfato de aluminio) o básicas (hidróxido sódico, hipoclorito sódico). También se almacenan líquidos nocivos (disolución amoniacal, HSO3Na), tóxicos (acrilamida) e inflamables (disolventes).

Para el almacenamiento y comercialización de productos sólidos (principalmente en big-bags o sacos paletizados) se dispone de una nave de 816 m^2, con acceso para camiones.

Por último, otro proceso que se lleva a cabo en la planta es el almacenamiento y envasado de carbonato sódico. Este proceso se realiza en una instalación que consta de un silo vertical, ensacadora, cinta transportadora y paletizadora para la expedición. El producto llega al silo de almacenamiento en camiones cisternas que descargan de forma neumática. Se dispone de dos filtros de mangas para la captación de las partículas emitidas en el proceso.

Además del foco de emisiones atmosféricas asociado al almacenamiento de cloro que se detalla más adelante, en los procesos de almacenamiento y envasado que se llevan a cabo en la planta existen otros tres focos de emisiones atmosféricas, asociados a los siguientes procesos: torre de absorción del almacenamiento y envasado de ácido clorhídrico (venteos de

sodio karbonatoa biltegiratu eta ontziratzea (mahuka-iragazkia).

2.– Baterietarako azido sulfurikoa biltegiratu eta diluitzea.

Prozesua, funtsean, azido sulfurikoa (% 98an) ur desmineralizatuarekin diluitzea da, azido % 38an diluitua lortzeko. Horretarako, ioi-trukaketa bidez ur desmineralizatua ekoizteko unitate bat dago, erreaktibo gisa HCl eta NaOH erabiltzen dituena. Diluitze-prozesuan askatzen den beroa fabrikan dagoen ur-putzutik diluitzailearen bidez birzirkulatzen den urarekin xurgatzen da.

Prozesu honi lotuta, azido sulfuriko diluiturako polietilenozko ontzien fabrikazioa dago, ontziratzearekin batera fabrikan bertan egiten dena, 1.800 m²-ko pabiloi itxi batean, eta ondoriozko produktua ere, H2SO4 % 38an, bertan biltegiratzen da.

Ontziak fabrikatzea prozesu jarraituan egiten da. Polietileno-legarrak estrusio-makina elikatzeko toberan jartzen dira, eta estrusio-/puzte-prozeduraren bidez botila lortzen da, 1 l edo 5 l-ko edukierakoa. Makinak bizar-kentzeko ekipo lineal bat du, ontzi bukatua kokatu eta bizarrak kentzen dituena. Bizarrak errota batean birrintzen dira, berrerabiltzeko. Ekipo hori ur desmineralizatuko zirkuitu itxi batez bidez hozten da.

3.– Aluminio-gatzak ekoiztea.

Aluminio polikloruroak eta aluminio sulfatoa ekoiztea da, batez ere uren tratamendurako direnak. Prozesu honetan erabiltzen diren lehengaiak aluminio hidroxidoa (AlOH)3, azido sulfurikoa (H2 SO4) % 98an, azido klorhidrikoa (HCl) % 33an (polikloruroak fabrikatzean) eta ur desmineralizatua dira.

Aluminio sulfatoa ekoizteko, fabrikak bi instalazio ditu, bat 1994koa, eta 2004ko instalazio berriak.

Aluminio sulfatoa eratzeko erreakzioa espontaneoa eta exotermikoa da, eta hortaz, prozesuaren tenperatura kontrolatu behar da. 1994ko instalazioetan hori lortzeko, erreaktore-atorrean zirkuitu itxian zirkulatzen duen urarekin hozten da erreaktorea, eta ondoren hozteko dorre batera igaro eta berriz ere zirkuitura joaten da.

Instalazio berriek kondentsadore bat dute, erreaktorean askatzen diren balizko lurrunak berreskuratzeko. Kondentsadore hori urez hozten da (hozteko dorrea). Likido kondentsatua 30 m³-ko berariazko andel batera eramaten da, eta hortik erreaktorera ponpatzen da berriz.

los depósitos), torre de absorción del envasado de amoníaco (no sistemático) y almacenamiento y envasado de carbonato sódico (filtro de mangas).

2.– Almacenamiento y dilución de ácido sulfúrico para baterías.

El proceso consiste básicamente en la dilución de ácido sulfúrico (al 98%) con agua desmineralizada, obteniendo un ácido diluido al 38%. Para ello se dispone de una unidad de producción de agua desmineralizada mediante intercambio iónico, utilizando HCl y NaOH como reactivos. El calor que se desprende en el proceso de dilución se absorbe con agua que se recircula a través del diluidor desde la balsa de aporte de agua existente en la planta.

Este proceso lleva asociada la fabricación de los envases de polietileno para el ácido sulfúrico diluido que, junto con el envasado, también se realiza en la misma planta, en un pabellón cerrado de 1.800 m², donde también se almacena el producto resultante, H2SO4 al 38%.

La fabricación de envases se realiza en proceso continuo. El polietileno en granza se vierte en la tolva de alimentación de la extrusora, y por el procedimiento de extrusión-soplado se obtiene la botella, de 1 l o de 5 l de capacidad. La máquina dispone de un equipo de rebabado lineal que posiciona el envase terminado y extrae las rebabas. Éstas se trituran en un molino para su reutilización. La refrigeración de este equipo es mediante un circuito cerrado de agua desmineralizada.

3.– Producción de sales de aluminio.

Consiste en la producción de policloruros de aluminio y sulfato de aluminio, destinados básicamente al tratamiento de aguas. Las materias primas de las que se parte en este proceso son hidróxido de aluminio Al(OH)3, ácido sulfúrico H2 SO4 al 98%, ácido clorhídrico HCl al 33% (en la fabricación de policloruros) y agua desmineralizada.

Para la producción de sulfato de aluminio la planta cuenta con dos instalaciones, una del año 1994 y las nuevas instalaciones del año 2004.

La reacción de formación de sulfato de aluminio es espontánea y exotérmica por lo que es necesario controlar la temperatura del proceso. En las instalaciones del año 1994 esto se consigue mediante refrigeración del reactor con agua que circula en circuito cerrado por la camisa del reactor, pasando posteriormente a una torre de refrigeración donde se enfría y pasa nuevamente al circuito.

Las nuevas instalaciones están equipadas con un condensador donde se recuperan los posibles vapores que se desprendan en el reactor. Este condensador está refrigerado por agua (torre de refrigeración). El líquido condensado se conduce a un depósito específico, de 30 m³, desde el que se bombean nuevamente al reactor.

Erreakzioa amaitutakoan, disoluzioa ponpa bidez erauzten da eta, prentsa-iragazki batean zehar pasaraziz, erreakzionatu gabeko gehiegizko hidratoa berreskuratzen da. Iragazitako disoluzioa bero-trukagailu batean zehar pasarazten da gero, hozteko, eta dauden andeletara ponpatzen da, biltegiratzeko.

Aluminio polikloruroak fabrikatzeko, sulfatoak fabrikatzeko lehengai berak erabiltzen dira, gehi azido klorhidrikoa % 33an. Prozesua sei erreaktoretan burutzen da. Al(OH)3 zinta amaigabe baten bidez kargatzen da erreaktoreetan; azido sulfurikoa eta klorhidrikoa, berriz, horien andeletatik ponpatzen dira. Ur desmineralizatua fabrikako bertako ekoizteko instalaziokoa da. Erreakzioan azido klorhidrikozko lurrunak isurtzen dira, eta xurgapen-dorre batera bidali eta korrontearen kontra garbitzen da urarekin.

Disoluzioak erreaktoreetan berotzeko, fabrikako galdaretako lurruna sartzen da erreaktoreak inguratzen dituzten hodibihurrietan. Ur kondentsatua galdarara birzirkulatzen da berriz. Erreakzioa amaitutakoan, nahasketa ur desmineralizatuarekin hozten da zirkuitu itxian: 27º C-tan sartzen da erreaktore-atorran eta 60º C-tan irteten da; gero hozteko dorrera joaten da eta berriz hozten da. Nahasketa andel nahasle batera igarotzen da, produktuaren ezaugarriak doitzeko. Azkenik, prentsa erako iragazki batean iragazten da, gehiegizko hidroxidoa bertan geratzen da, eta prozesuko erreaktore batera birziklatzen da.

Adierazi den bezala, prozesu horri lotuta xurgapen-dorre bat dago azido klorhidrikoaren balizko isuriak tratatzeko.

4.– Melamina/formol erretxina ekoiztea.

Melamina/formol erretxina (polimero baten urdisoluzioa) ekoizteko prozesuan % 37ko aberastasuneko formaldehidoa (% 7 metanol), ur desmineralizatua, azido klorhidrikoa eta melamina bezalako lehengaiak erabiltzen dira. Beste erreaktibo batzuen kopuru txikiak ere erabiltzen dira pH-a doitzeko.

Oinarrizko erretxina sortzen deneko erreaktoreak gas-irteera bat du scrubber batera (garbiketa-dorrea), eta hor ur desmineralizatua korrontearen kontra zirkularazten da, formaldehido-lurrunak xurgatzeko. Disoluzioa scrubber-aren behealdean biltzen da, eta hortik prozesura elikatzen da berriz.

Lehengaiak eta produktu bukatua biltegiratzeko andelak segurtasun-kubeta batean jartzen dira, fabrikazio-eremuaren ondoan.

5.– Gatz ez-organikoen disoluzioak eta nahasketak.

Una vez finalizada la reacción, la solución se extrae del reactor mediante bomba y se hace pasar por un filtro prensa donde se recupera el exceso de hidrato no reaccionado. La solución filtrada pasa posteriormente a través de un intercambiador de calor para su enfriamiento y se bombea a su almacenamiento en los tanques existentes.

Para la fabricación de policloruros de aluminio se utilizan las mismas materias primas que para la fabricación de sulfatos más ácido clorhídrico al 33%. El proceso se lleva a cabo en seis reactores. El Al(OH)3 se carga en los reactores mediante un sinfín, mientras que el ácido sulfúrico y el clorhídrico se bombean desde sus respectivos depósitos. El agua desmineralizada procede de la instalación de producción de la propia planta. En la reacción se emiten vapores de ácido clorhídrico que se envían a una torre de absorción y se lavan en contra corriente con agua.

Para el calentamiento de las disoluciones en los reactores se introduce vapor procedente de las calderas existentes en la planta, en los serpentines que rodean a los reactores. El agua condensada se recircula de nuevo a la caldera. Finalizada la reacción, la mezcla se enfría con agua desmineralizada en circuito cerrado que penetra en la camisa del reactor a 27º C, y que sale a 60º C pasando posteriormente a la torre de refrigeración donde se enfría de nuevo. La mezcla pasa a un depósito mezclador, donde se ajustan las características del producto. Por último, se filtra en un filtro tipo prensa donde se retiene el exceso de hidróxido que se recicla a uno de los reactores del proceso.

Tal como se ha señalado, este proceso lleva asociada una torre de absorción para el tratamiento de las posibles emisiones de ácido clorhídrico.

4.– Producción de resinas melamina – formol.

En el proceso de producción de resina melamina –formol (disolución acuosa de un polímero) intervienen como materias primas formaldehido de 37% de riqueza (7% de metanol), agua desmineralizada, ácido clorhídrico y melamina. Finalmente se utilizan pequeñas cantidades de otros reactivos para el ajuste del pH.

El reactor en el que se forma la resina base dispone de una salida de gases a un scrubber (torre de lavado), en la que se hace circular agua desmineralizada en contracorriente para la absorción de los vapores de formaldehído. La disolución se recoge en la parte inferior del scrubber desde donde vuelve a ser alimentada al proceso.

Los depósitos de almacenamiento de las materias primas y del producto terminado se ubican en un cubeto de seguridad, anexo a la zona de fabricación.

5.– Fabricación de disoluciones y mezclas de sales inorgánicas.

Diluitzeko eta nahasteko prozedura sinpleen bidez, honelako produktuak lortzen dira:

– Kaltzio klorurozko disoluzioak uretan.

– Potasio hidroxidozko diluzioak.

– Sodio bikarbonatozko disoluzioak.

Koagulatzaile likidoak, gehigarriak dituzten burdina- eta aluminio-gatzen nahasketa-oinarrikoak.

– Korrosio-kontrako produktuak.

Aipatutako produktu-familia guztiak nahasketa-eragiketa sinpleen bidez fabrikatzen dira, eta hala badagokio, ur-diluzioz, irabiagailua duten 4 nahasgailutan, erreakzio kimikorik sortu gabe. Eragiketa etenak edo karga bidezkoak dira, ekoizpen aldakorrekoak, eskariaren arabera.

6.– Akrilamidazko polimeroak eta emultsio polimerikoak fabrikatzea.

Akrilamidazko polimeroak ekoizteko prozesua ur desmineralizatua eta lehengaiak 25 m^3-ko edukiera erabilgarriko erreaktore batean dosifikatzean oinarritzen da, non polimerizazio-erreakzioa sortzen den. Erreakzio bakoitzaren ostean, erreaktorea 3.000 litro inguruko ur-bolumen batekin garbitzen da, etengabe irabiatuz. Ur hori efluenteak biltzeko putzura isurtzen da gero.

Poliakrilamida kationiko aldatuzko disoluzioak gainazalak inprimatzeko erabiltzen dira paper-industrian.

Emultsio polimerikoak fabrikatzeko prozesua urrats hauetan datza funtsean: elikatze-andeletan lehengaiak (monomeroak) eta beharrezko erreaktiboak (polimerizazio-abiarazleak, katalizatzaileak, etab.) hornitu eta prestatzea; dagokion erreaktorea dosifikatzea (bi erreaktore daude, 3,65 m^3 eta 18 m^3-koak); bi faseko erreakzioa, N2-zko atmosfera kontrolatuan, bitarteko kontrolarekin; iragaztea; biltegiratze-andelera aldatzea, eta erreaktorea garbitzea.

Erreaktorean sortutako lurrunak zirkuitu itxiko urarekin hoztutako kondentsadoreetan biltzen dira, eta erreaktorera likido gisa itzultzen dira.

Erreakzio bakoitzaren ostean, erreaktoreak garbitu egiten dira. Ur hori drainatze-sarearen bidez efluenteak biltzeko putzura isurtzen da gero, araztegian tratatzeko.

7.– Jarduerak eta prozesuak kloro likidoarekin.

Kloroa biltegiratu eta manipulatzeari dagokionez, ondorengo jarduerak eta prozesuak burutzen dira:

– Kloroa biltegiratu eta ontziratzea:

Mediante procedimientos sencillos de dilución y mezcla se obtienen diversos productos tales como:

– Disoluciones de cloruro cálcico en agua.

– Diluciones de hidróxido potásico.

– Disolución de bicarbonato sódico.

Coagulantes líquidos a base de mezclas de sales de hierro y de alumino aditivadas.

– Productos anticorrosión.

Todas las familias de productos citadas se fabrican mediante operaciones sencillas de mezcla y, si es el caso, dilución con agua, en 4 mezcladores agitados, sin que se produzcan reacciones químicas. Se trata siempre de operaciones discontinuas o por cargas, con una producción variable, en función de la demanda.

6.– Fabricación de polímeros de acrilamida y emulsiones poliméricas.

El proceso de producción de los polímeros de acrilamida se basa en la dosificación de agua desmineralizada y las distintas materias primas en un reactor 25 m^3 de capacidad útil, en el que se produce la reacción de polimerización. Tras cada reacción, se procede al lavado del reactor con un volumen de agua del orden de 3.000 litros y en agitación constante. Estas aguas se vierten posteriormente a la balsa de recogida de efluentes.

Las soluciones de poliacrilamida catiónica modificada son utilizadas como imprimación superficial en la industria papelera.

El proceso de fabricación de las emulsiones poliméricas consiste básicamente en los siguientes pasos: abastecimiento y preparación en los depósitos de alimentación de las materias primas (monómeros) y reactivos necesarios (iniciadores de la polimerización, catalizadores, etc.), dosificación al reactor correspondiente (existen dos reactores, de 3,65 m^3 y 18 m^3), reacción en dos fases, bajo atmósfera controlada de N2, con control intermedio, filtración, trasvase al tanque de almacenamiento y limpieza de reactor.

Los vapores generados en el reactor se recogen en condensadores refrigerados con agua en circuito cerrado que hace que vuelvan al reactor como líquido.

Después de cada reacción se procede al lavado de los reactores. Estas aguas se vierten posteriormente a través de la red de drenaje existente a la balsa de recogida de efluentes para su tratamiento en depuradora.

7.– Actividades y procesos con cloro líquido.

En relación con el almacenamiento y manipulación de cloro se llevan a cabo las siguientes actividades y procesos:

– Almacenamiento y envasado de cloro:

Fabrikak kloroa biltegiratzeko 40 m^3-ko hiru andel ditu. Horietako bat hutsik egoten da segurtasun-ontzi gisa, beste bietan gainpresio-egoera sortzen bada. Andelek beren segurtasun-ekipoak dituzte eta pisua kontrolatzeko sistema bat dute, une oro horien karga zein den jakiteko. 120 m^3-ko edukierako segurtasun-kubeta baten barruan kokatuta daude, beti itxita dagoen husteko balbula duena. Gainera, andel bakoitzak segurtasun-balbula bat du, gas bihurtutako kloroa hartzeko instalazio batera deskargatzen duena (kloroa xurgatzeko dorrea).

Biltegiratutako kloroa botila eta edukiontzietan ontziratzeko eta kloruro ferrikoa fabrikatzeko erabiltzen da.

Balizko kloro-ihesak detektatzeko, alarmei eta deigune batera konektatutako 4 sentsore daude. Sentsoreak kloroa biltegiratu eta ontziratzeko gunearen perimetroan kokatuta daude.

Kloroa xurgatzeko dorreak andeletako gas bihurtutakoak eta zisternak husteko eta ontziak bete eta gasgabetzeko eragiketetako gas-kloroa biltzen ditu. Kloroa xurgatzeko dorre bat du, eta sosarekin nahasten da hor, sodio hipokloritoa sortzeko. Xurgapen-dorre hori isuri atmosferikoen 6. fokua da.

Presio-probak kloro-ontzietan.

Lehenago aipatutako jarduerez gain, Dekitra SA enpresak Kontrol Erakunde Baimendu gisa dihardu, botila (40 eta 150 kg-ko edukierakoak) eta botiloien (500 eta 1.000 kg-ko edukierakoak) aldizkako ikuskapenak egiteko. Presio-probetarako 4,80 m x 4,60 m-ko eta 3 m garaiko hormetako hormigoizko bunker bat dago.

8.– Sodio hipokloritoa ekoiztea.

Sodio hipokloritoa aurreko paragrafoetan deskribatutako kloroa xurgatzeko dorrean lortzen da. Lehenago deskribatutako jardueretako azpiproduktua da beraz. Gas-kloroa hodiak zein kloroa biltegiratzeko andelak gasgabetzetikoa izan daiteke.

Lortutako produktua (sodio hipokloritoa disoluzioan) kubeta berean kokatutako 4 andeletan biltegiratzen da, eta horietako handiena, 125 m^3-koa, erabiltzen da normalean.

9.– Fabrika pilotua.

Instalazioan fabrika pilotu bat dago produktu berriak ikertu eta garatzeko, batik bat malutatzaile gisa erabilitako polimeroak, mikroemultsio jakin batzuk polimerizatuz lortuak. Fabrika eraikin independente bat da, edukiera ezberdinetako 7 erreaktore dituena, eta horietan adierazitako produktuak fabrikatzeko behar diren nahasketak eta erreakzioak sortzen dira.

La planta dispone de tres depósitos de almacenamiento de cloro de 40 m^3 cada uno, de los cuales uno permanece vacío como recipiente de seguridad en situaciones de sobrepresión en los otros dos. Los depósitos van dotados de sus correspondientes equipos de seguridad y disponen de un sistema de control de peso para saber en todo momento cuál es su carga. Están situados en el interior de un cubeto de seguridad de 120 m^3 de capacidad que dispone de válvula de evacuación permanentemente cerrada. Además, cada depósito tiene una válvula de seguridad que descarga a una instalación de recepción de desgasados de cloro (torre de absorción de cloro).

El cloro almacenado es utilizado para su envasado en botellas y contenedores y en la fabricación de cloruro férrico.

Para la detección de posibles escapes de cloro se dispone de 4 sensores conectados a alarmas y a una central de llamadas. Los sensores están situados en el perímetro de la zona de almacenamiento y envasado del cloro.

La torre de absorción de cloro recoge los desgasados de los tanques y el gas cloro proveniente de las operaciones de descarga de las cisternas, y del llenado y desgasado de envases. Consta de una torre de absorción de cloro donde éste se mezcla con sosa formándose hipoclorito sódico. Esta torre de absorción constituye el foco n.º 6 de emisiones a la atmósfera.

– Pruebas de presión en recipientes de cloro.

Además de las actividades señaladas anteriormente, Dekitra, S.A. actúa como Organismo de Control Autorizado para la realización de inspecciones periódicas de botellas (de 40 150 Kg de capacidad) y botellones (de 500 a 1.000 kg) de cloro. Para las pruebas de presión dispone de un bunker de hormigón de 4,80 m x 4,60 m y muros de 3 m de altura.

8.– Producción de hipoclorito sódico.

El hipoclorito sódico se obtiene en la torre de absorción de cloro descrita en los párrafos anteriores. Se trata por tanto de un subproducto de las actividades descritas anteriormente. El cloro gaseoso puede provenir bien del desgasado de conducciones o de los propios tanques de almacenamiento de cloro.

El producto obtenido (hipoclorito sódico en disolución) se almacena en 4 depósitos ubicados en un mismo cubeto, siendo el mayor de ellos, de 125 m^3, el que se utiliza en situaciones normales.

9.– Planta piloto.

Se dispone en la instalación de una planta piloto de investigación y desarrollo de nuevos productos, especialmente polímeros usados como floculantes, obtenidos por polimerización de determinadas microemulsiones. La planta consiste en un edificio independiente donde se alojan 7 reactores de distintas capacidades donde se producen las mezclan y reacciones necesarias para la fabricación de los productos señalados.

Deskribatutako jarduerak burutzeko Lantarongo fabrikan erabilitako energia-baliabideak lurrungaldaretarako energia elektrikoa eta gasolioa dira, batik bat melamina/formol erretxinak eta aluminiogatzak fabrikatzeko erabiltzen direnak (hurrenez hurren 0,77 MW eta 0,84 MW-eko edukierako bi lurrun-galdara).

Fabrikan industria- eta etxe-erabilerarako eta berdegunea ureztatzeko kontsumitutako ura (guztira 350 m^3/egun gutxi gorabehera) putzu batetik eta zuzenean Ebro ibaitik lortzen da, eta horretarako ur publikoa baliatzeko emakida bat dute.

Ontziak eta zisternak garbitzeko urak, ponpak eta konpresoreak hoztekoak, lan-eremuak garbitzekoak, nahasgailuak, erreaktoreak eta beste gailu batzuk (mahukak, hodiak, iragazkiak, etab.) garbitzekoak, ur desmineralizatua fabrikatzeko ioi-trukaketako erretxinak birsortzeko urak, produktu kimikoekin kutsa daitezkeen euri-urak, eta hobi septikotik igaro ondorengo ur sanitarioak 600 m^3-ko edukierako biltzeko putzu batera eramaten dira. Ondoren, ur horiek hondakinurak arazteko 25 m^3/h-ko ahalmeneko instalazio batera igarotzen dira, etapa hauek dituena: ur tratatugabea ponpatzea, pH-a egokitzea, malutatzailea dosifikatzea, dekantazioa, lohiak loditzea eta iragaztea. Ur araztua Ebro ibaira isurtzen da. Bestetik, estalduretako euri-ur garbiak eta azken handitzeko zabalguneko azaleko urak (produktu arriskutsuekin ezin kutsatu direnak) industrialdeko udal-kolektorera eramaten dira.

Instalazioak isuri atmosferikoen 11 foku ditu: gasolioa erretzeko 1. eta 2. galdarei lotutako bi foku; melamina/formol erretxina fabrikatzeko prozesuari lotutako foku bat; azido klorhidrikoa biltegiratzeari lotutako foku bat; kloruro ferrikoa fabrikatzeko prozesuari lotutako hiru foku; kloroa biltegiratzeari lotutako foku bat; aluminio polikloruroak fabrikatzeko prozesuari lotutako foku bat, eta karbonatoak ontziratzeko prozesuari lotutako foku bat. Gainera, amoniakoa ontziratzeko prozesuari lotutako isuri ezsistematikoak sortzen dira.

Hondakin arriskutsuak sortzen dituzten prozesuak deskribatutako ekoizte-prozesuak dira, eta mantentzelanak.

Ekoizte-prozesuetan teknika erabilgarri onenak erabiltzen dira, industria kimikoko hondar-ur eta -gasak tratatzeko sistemei buruzko («Reference Document on Best Available Techniques in Common Waste Water and Waste Gas treatment/Management Systems in the Chemical Sector») Europako BREF agiriak jasotzen dituenak, hondakin-urak isurtzeko eta gasen isuri atmosferikoak tratatzeko sistemei dagokienez; hortaz, kutsaduraren prebentzio eta kon-

Los recursos energéticos utilizados en la planta de Lantarón para llevar a cabo las actividades descritas son la energía eléctrica y el gasóleo para las calderas de vapor, utilizadas fundamentalmente en la fabricación de resinas melamina-formol y sales de aluminio (dos calderas de vapor de 0,77 MW y 0,84 MW de potencia, respectivamente).

El agua consumida en la planta para uso industrial y doméstico y riego de la zona verde (en total 350 m^3/día aproximadamente) se obtiene de un pozo y directamente del río Ebro, para lo cual se dispone de una concesión de aprovechamiento de aguas públicas.

Las aguas de lavado de envases y cisternas, las de refrigeración de bombas y compresores, las de limpieza de zonas de trabajo, limpieza de mezcladores y reactores y otros dispositivos (mangueras, tuberías, filtros, etc.), las aguas de regeneración de las resinas de intercambio iónico en la fabricación de agua desmineralizada, así como las aguas pluviales susceptibles de contaminación con productos químicos, y las aguas sanitarias tras su paso por fosa séptica, se conducen a una balsa de recogida de 600 m^3 de capacidad. A continuación, estas aguas pasan a una planta depuradora de aguas residuales con una capacidad de 25 m^3/h, que consta de las siguientes etapas: bombeo de agua bruta, acondicionamiento de pH, dosificación de floculante, decantación, espesado de fangos y filtración. El agua depurada es vertida al río Ebro. Por otro lado, las aguas pluviales limpias de cubiertas y las superficiales de la explanada de la última ampliación, donde no cabe contaminación con productos peligrosos, se conducen al colector municipal del polígono industrial.

La instalación cuenta con once focos de emisión a la atmósfera: dos focos asociados a las calderas de combustión de gasóleo 1 y 2, un foco asociado al proceso de fabricación de resina melamina-formol, un foco asociado al almacenamiento de ácido clorhídrico, tres focos asociados al proceso de fabricación de cloruro férrico, un foco asociado al almacenamiento de cloro, un foco asociado al proceso de fabricación de policloruros de aluminio, y un foco asociado al proceso de envasado de carbonatos. Además, se generan emisiones no sistemáticas asociadas al proceso de envasado de amoniaco.

Los procesos generadores de residuos peligrosos son los diversos procesos productivos descritos, así como las labores de mantenimiento.

Los procesos productivos incorporan las mejores técnicas disponibles, recogidas en el BREF europeo de sistemas de tratamiento de aguas y gases residuales en la Industria Química («Reference Document on Best Available Techniques in Common Waste Water and Waste Gas Treatment / Management Systems in Chemical Sector») en cuanto a los sistemas de tratamiento final de los vertidos de aguas residuales y las emisiones de gases a la atmósfera, de forma que se

trol integratuari buruzko araudian ingurumena oro har babesteko adierazitako helburuak betetzen dira. Halaber, Dekitra SA enpresak Europako Batzordeko BREF agiri hauetako teknika erabilgarri onen generikoak ezarrita ditu: solido ez-organikoak fabrikatzeko BREF agiria («Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volumen Inorganic Chemicals - Solid and Others Industry»); hondakinak kudeatzeko BREF agiria («Reference Document on Best Available Techniques for the Waste Treatments Industries»); polimeroak fabrikatzeko BREF agiria («Reference Document on Best Available Techniques in the Production of Polymers»); monitorizazioko BREF agiria («Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring»), eta hozteari buruzko BREF agiria («Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems»). Halaber, biltegiratzeari buruzko BREF agirian («Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage») adierazitako TEOetako bat du: hondakin-uren 600 m^3-ko edukierako ur-andel bat, kutsatuta egon daitezkeen instalazioko ur guztiak biltzen dituena.

Hirugarrena.– Dekitra SA enpresak Lantarongo udalerrian HCl-zko bainu agortuak kudeatzeko eta orokorrean industriarako produktu kimikoak ekoiztu eta merkaturatzeko jardueraren ustiapenerako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da milioi bat eta ehun mila euroko (1.100.000 euro) zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratuko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Fidantza-prestazioa ehun eta berrogei mila euroko (140.000 euros) zenbatekoaz, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 28. artikuluaren 2. atalean ezarritako baldintzetan, eta artikulu horren 3. atalean aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta biltegiratzeko gehienezko ahalmenen arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

cumplen los objetivos para la protección del medio ambiente en su conjunto señalados en la normativa vigente en materia de prevención y control integrados de la contaminación. Asimismo Dekitra, S.A. tiene implantadas las mejores técnicas disponibles genéricas de los siguientes documentos BREF de la Comisión Europea: BREF de Fabricación de sólidos inorgánicos («Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Large Volumen Inorganic Chemicals - Solid and Others Industry»), BREF de gestión de residuos («Reference Document on Best Available Techniques for the Waste Treatments Industries»), BREF de fabricación de polímeros («Reference Document on Best Available Techniques in the Production of Polymers»), BREF de monitorización («Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring») y BREF de refrigeración («Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems»). Asimismo se dispone de una de las MTDs señaladas en el BREF de almacenamiento («Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage»), consistente en una piscina de aguas residuales de 600 m^3 de capacidad que recoge todas las aguas potencialmente contaminadas de la instalación.

Tercero.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de gestión de baños agotados de HCl y para la elaboración y comercialización de productos químicos destinados a la industria en general, promovida por Dekitra, S.A. en el término municipal de Lantarón.

A) Deberá constituirse un seguro de responsabilidad civil por una cuantía de un millon cien mil euros (1.100.000 euros) que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio ambiente alterado, derivados del ejercicio de la actividad objeto de autorización.

El importe de dicho seguro será actualizado anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

B) Prestación de fianza por un importe de ciento cuarenta mil euros (140.000 euros) en los términos establecidos en el artículo 28, apartado 2, del Real Decreto 833/1988 de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, básica de residuos tóxicos y peligrosos, que podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en el apartado 3 de dicho artículo. El importe de dicha fianza se determina en función de las capacidades máximas de tratamiento y de almacenamiento de residuos.

El importe de dicha fianza podrá ser actualizada anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

C) Dekitra SA enpresak Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako edozein daturen aldaketen berri emango dio Ingurumeneko sailburuordetzari.

D) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8 artikuluan zehazten den epea bi urtekoa da, Ebazpen honen jakinarazpena jaso denetik kontatzen hasita. Horretarako, sustatzaileak proiektua burutzen hasteko aurreikusitako data jakinaraziko dio Ingurumeneko sailburuordetzari, gutxienez hilabete lehenago.

E) Proiektua burutzeko aurreikusitako aurrekontua eta baldintza-agiria Ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa burutzeko obra-unitateekin eta prezioekin osatu beharko dira.

F) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

F.1.– Instalazioa eraikitzeko baldintza orokorrak.

F.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea.

a) Lurzorua okupatu behar duten obrak eta eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Makinek eta lanerako ibilgailuek muga horietatik kanpo zirkulatzea ahalik eta gehien murriztuko da.

b) Esparru horretatik kanpo ustekabeko eraginak sortuz gero, zuzentzeko eta lehengoratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, aurrez Ebazpen honen F.1.10 atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

c) Obra-sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegiratzeko eta hondeaketa-lurrak eta hondakinak aldi baterako metatzeko area ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideen arabera proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak kartografia xehatuan zehaztasunez mugatuko dira. Mugapen hori obra-zuzendaritzak onartu beharko du, Ebazpen honen F.1.10 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda.

F.1.2.– Ura eta ibai-ekosistema babesteko neurriak.

a) Obrako makina-parkea izateko azalera eta horren mantentze-lanetarako gunea drainadura naturaleko saretik isolatuko da. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, lurzorua eta urak olio eta erregaien eraginez kutsatzea saihesteko. Erregaien

C) Dekitra, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al titulado superior responsable de las relaciones con la Administración.

D) El plazo al que se refiere el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, será de dos años, a contar desde la notificación de la presente Resolución. A estos efectos el promotor deberá comunicar a la Viceconsejería de Medio Ambiente, al menos con un mes de antelación, la fecha prevista para el inicio de la ejecución del proyecto.

E) El presupuesto y el pliego de condiciones presentados para la ejecución del proyecto deberán completarse con las unidades de obra y precios relativos a la ejecución de las medidas protectoras y correctoras y del programa de vigilancia ambiental establecidos mediante la presente Resolución.

F) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

F.1.– Condiciones generales de construcción de la instalación.

F.1.1.– Delimitación del ámbito de actuación.

a) Las obras, así como el conjunto de operaciones auxiliares que impliquen ocupación del suelo, se desarrollarán dentro de los límites del proyecto. Se restringirá al máximo la circulación de maquinaria y vehículos de obra fuera de los límites citados.

b) En caso de afecciones accidentales fuera del ámbito señalado, serán aplicadas las medidas correctoras y de restitución adecuadas, previo informe de la asesoría ambiental señalada en el apartado F.1.10 de esta Resolución.

c) Los accesos de obra, el parque de maquinaria, el área de almacenamiento temporal de materiales de obra, de acopios temporales de tierras de excavación y de residuos se proyectarán en base a criterios de mínima afección ambiental. Con carácter previo al inicio de las obras, se realizará una delimitación precisa en cartografía de detalle de los aspectos anteriores. Dicha delimitación deberá ser aprobada por la Dirección de Obra, previo informe de la asesoría ambiental mencionada en el apartado F.1.10 de esta Resolución.

F.1.2.– Medidas destinadas a la protección de las aguas y el ecosistema fluvial.

a) La superficie destinada a parque de maquinaria de obra y la zona de mantenimiento de la misma se aislará de la red de drenaje natural. Dispondrá de solera impermeable y de un sistema de recogida de efluentes parar evitar la contaminación del suelo y de

zamalanak, olioa aldatzea eta tailerreko jarduerak ez dira baimenduko adierazitako guneetatik kanpo.

b) Eraikuntza-fasea jalkin xeheak drainadura naturaleko sarera isurtzea minimizatuz egingo da. Horretarako, ura bideratzeko tresnak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egingo dira, horietan obren ondoriozko ur kutsatua biltzeko.

c) Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak 2008ko urtarrilaren 10ean espediente honi buruz igorritako txostenean agertzen diren prebentziozko neurriak eta babesleak burutuko dira, zebra muskuilua, Dreissena polymorfa, Ebro arroan zehar zabaltzeari dagokionez.

F.1.3.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Pistak eta aldi baterako soil egongo diren eremuak ureztatzeko sistema bat egongo da.

b) Obra-guneetako irteeran ibilgailuak garbitzeko gailuak izango dira. Gailu horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza Ebazpen honen F.1.11 puntuak aipatzen duen agirian jaso beharko dira.

F.1.4.– Zaratak, dardarak eta horien eraginak gutxitzeko neurriak.

Eraikitzerakoan, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean deskribatutako obrako jarraibide egokiak aplikatuko dira, obra-makinen mantentze-lan orokorrari eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, zonabanatze akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez, obretan erabilitako makinak aire zabaleko erabilerako makinei buruz indarrean den legerian ezarritako aginduetara egokitu behar dira; eta zehazki, aplikatzekoa denean, otsailaren 22ko 1367/2007 Errege Dekretuan, aire zabaleko erabilerako makina jakin batzuen zarata-isuriak arautzen dituenean, eta arau osagarrietan ezarritakoari.

F.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obretan sortutako hondakinak, hondeaketakoak, ebakiak, enbalajeak, erreuseko lehengaiak eta garbiketa-kanpainakoak barne, apirilaren 21eko hon-

las aguas por acción de aceites y combustibles. No se permitirá la carga y descarga de combustible, cambios de aceite y las actividades propias de taller en zonas distintas a la señalada.

b) La fase de construcción deberá realizarse minimizando la emisión de finos a la red de drenaje natural. Para ello se proyectarán y ejecutarán dispositivos de conducción de aguas y sistemas de retención de sólidos en suspensión, de forma que se recojan en ellos las aguas contaminadas por efecto de las obras.

c) Se llevarán a cabo las medidas preventivas y protectoras que figuran en el informe que con respecto a este expediente ha emitido la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental en fecha 10 de enero de 2008, en relación con la difusión del mejillón cebra, Dreissena polymorfa, a través de la cuenca del Ebro.

F.1.3.– Medidas destinadas a aminorar las emisiones de polvo.

a) Durante el tiempo que dure la obra se llevará a cabo un control estricto de las labores de limpieza de viales y otras zonas de paso de vehículos, tanto en el entorno afectado por las obras como en las áreas de acceso a éstas. Se contará con un sistema para riego de pistas y superficies transitoriamente desnudas.

